

UDALARI ZUZENDUTAKO PROPOSAMENAK

AZOKAK eta DENDA TXIKIAK

1. Azoka eta denda ekologikoak bultzatzea.
2. Azokak sarriago antolatzea bertako produktuak saltzeko eta baserritarrei laguntzeko.
3. Denda txikiei laguntzak ematea eta hauek bultzatzea.

ORTUAK

4. Herritarrei ortuak lantzeko aukera ematea (Arrasateko eredu bezala).

BASHERRI KONTSUMO TALDEA

5. Baherri kontsumo taldearen proiektua bultzatzea.
6. Lokal bat ematea talde honi bere egin beharrekoak aurrera eraman ahal izateko.
7. Kontsumo talde gehiago sortzen laguntzea.
8. Basherrri kontsumo taldea bultzatzeko ekoizleak aurkitzea.

ETIKETAK eta PRODUKTUEN KOKAPENA

9. Dendetan produktuen jatorria eta kalitatea ondo adierazita egotea, produktuaren etiketan edo produktuek izaten duten kartelxoan. Horretarako udalak dendariekin bilerak egitea.
10. Dendetan bertako produktuak leku berezi baten jartzea eta prezioak jeistea pixka bat. Horretarako udala dendariekin harremanetan jartzea.
11. Bertako eta kalitatezko produktuak dendetan ondo adieraztea. Hau lortzeko udalak dendariekin bilerak egitea.
12. Herrian esne makina jarri

KANPAINAK eta HITZALDIAK

13. Transgenikoen inguruan informazio zabaltzea, hitzaldiak antolatuz edo kanpainak eginez.
14. Jendea azoka eta denda txikietan erosketak egitera animatzeko kanpainak egitea.
15. Bertako produktuei garrantzia ematea eta hauek kontsumitzeko kanpainak egitea.
16. Hitzaldiak antolatzea elikadurari buruz eta gaur egungo elikagai mota ezberdinen inguruan.
17. Baserri eta baserritarren gaur egungo egoera ezagutzeko informazio zabaltzea eta baserrietako produktuak babestea.
18. Jendeak produktuak zuzenean baserritarrei erostera animatzeko kanpainak egitea.
19. Jendea animatzea kontsumo taldeko proiektuan parte hartzera.

BERTAKO PRODUKTUAK

20. Bertako produktuen denda bat jartzea.

BASERRITARRAK

21. Laguntzak ematea bertako produktuak lantzen dituztenei, hau da baserritarrei.

Hau izan da aurten egindako lanaren laburpena. Eskerrik asko gure iritzia plazaratzeko ematen diguzuen aukeragatik. Esan nahi genizueke honetan jarraitzeko asmo guztia dugula, zuekin eta herritar guztiekin batera herri jasangarri baten alde lan eginez.



ARETXABALETA Eskolako Agenda 21

2011-2012 IKASTURTEA

Eskola Agenda 21 programaren bitartez Aretxabaletako eskolako ikasle, irakasle, guraso eta orokorrean ikas-komunitate osoa, eskola eta herria jasangarritasunerantz bideratzeko lanean aritu gara.

Kontuan izan behar da proiektu hau prozesu jarrai bat dela eta aurreko urteetan egindakoa ere aurten ez dugula ahaztu. Orain arte landutako gaiak honakoak izan dira: Ekitatea, zarata, argi kutsadura, uhin elektromagnetikoak... eta gai hauen inguruan asko ikasi ondoren aurten gai berri bati ekin diogu, **ELIKADURA**; elikagaien biodibertsitatea, bertako produktuen garrantzia, elikadura eta osasuna... Baina beti ere aurreko urteko gaiekin lotuz eta erlazionatuz.

Kurtzeberri eskolako **423 ikasle** aritu gara gure irakasleekin batera buru belarri, aurtengo gaia jorratzen.

- **Kurtzeberri LH:** 240 ikasle
- **Kurtzeberri DBH:** 183 ikasle

Mota askotako ekintzak garatu ditugu guztia lantzeko eta diagnostiko bat eginez ikusitako akatsei konponbideak jartzen saiatu gara.

Gure aldetik, egoera hobetzeko konpromisoak hartzeko prest gaude eta Udaletik ere neurri ezberdinak bideratu daitezkeela ikusi dugunez, horien gaineko proposamenak Udaleko ordezkariari helarazi nahi dizkizuegu.

Eskolan adostutako konpromiso eta proposamenekin, aurkeztera goazen txostena egin dugu.



ZER IKASI DUGU?

1. Bertako produktuak osasuntsuagoak eta freskoagoak dira.
2. Urrutitik produktuak ekartzeak prezioak garestitzea dakar eta airea kutsatzea, izan ere produktu hauek garraiatu egin behar baitira.
3. Baserritarren egoera ez da batere ona, alde batetik gero eta gutxiago daudelako eta beste aldetik ez daukatelako beren produktuen salmantan irabazirik.
4. Sasoi bakoitzean produktu konkretu batzuk daude.
5. Gosari osasuntsua zer den eta osasunerako duen garrantzia.
6. Produktu ekologikoak eta labeldunak zer diren.
7. Jaten ditugun hamaiketakoak hondakin gehiegi sortzen dute.
8. Elikagai transgenikoak zer diren.
9. Kontsumo taldeak ezagutu ditugu.



ESKOLAKO DIAGNOSTIKOA

- Jangelako menuak Ausolanek prestatzen ditu baina ez dakigu nolako produktuekin egiten duten lan, nondik ekarritakoak diren... horregatik Debagoienako Eskola Agenda 21eko koordinatzaileen artean eskutitz bat bidali genien informazio hori eskatuz.
- Hamaiketakoan sortzen ditugun hondakinen kudeaketarako gela bakoitzean kolore ezberdinetako edukiontzia jarri ditugu hondakin mota ezberdinak sailkatzeko.



HERRI MAILAKO DIAGNOSTIKOA


Atal honetan elikaduraren inguruan gure herria nola dagoen aztertu dugu, horretarako batez ere inkestak (etxean eta herritarrei) eta kaleko behaketak egin ditugu. Hauek izan dira taldeka burutu ditugun jarduerak:

- **LH 1. ziklokoek** elikagai ezberdinak identifikatu eta dagokien urte sasoiari kokatu ditugu. Ekartzen dugun hamaiketako eta honekin sortzen ditugun hondakinak aztertu ditugu.
- **LH 2. ziklokoek** etxean galdetegi bat egin dugu jendeak bertan ekoiztutako produktuak kontsumitzeari ematen dion garrantzia neurtzeko eta garai batean ziztzen elikatze moduei buruz gehiago jakiteko.
- **LH 3. ziklokoek** kontsumo ohiturak aztertu ditugu, produktuen janaria ezagutzen dugun, bertako eta garaiko produktuak kontsumitzen al ditugun...jakinez. Honekin batera herriko dendetan azterketa egin dugu produktu ekologikoak non erosi daitezkeen jakiteko.
- **DBH 1. mailakoak** sukaldari lanetan ibili gara eta gazta tarta bat egin dugu, baina horretarako osagaiak erostera atera behar izan dugu eta hauek ekologikoak izan behar zuten erosteko ekologikoa egin dugu.
- **DBH 2. mailakoak** Baseherri kontsumo taldea ezagutu dugu eta taldeko partaide bat hitzaldia ematera etorri zaigu. Honez gain elikadura subiranotasun kontzeptua ezagutu dugu.
- **DBH 3. mailan** produktu transgenikoak zer diren ezagutu ditugu eta hauek identifikatzeko etiketak begiratzen aritu gara. Honekin batera gure etxean ditugun produktuen etiketak ere aztertu ditugu.
- **DBH 4. mailan** Milurteko helburuak ezagutu ditugu eta hausnarketa bat egin dugu gaur egun munduan elikadurarekin erlazionatuta dagoen arazo larriarekin.



LORTUTAKO EMAITZA OROKORRAK

- Jende gehienak supermerkatuan egiten du erosteko eta ez azoketan.
- Haragia ordea orokorrean harategietan erosteko ohitura dute.
- Supermerkatuetan kanpoko produktu gehiago aurkitzen ditugu azoketan baino.
- Janariaren jatorria beti ez da ezagutzen, hala ere batzuetan ez diogu garrantzirik ematen puntu honi.
- Baserritarrei erosten zaie baina gutxi eta erosten ez dutenek eskura izango balute erosteko lukete.
- Nahiz eta gu ez konturatu etxean produktu transgeniko ugari ditugu.
- Zaila da herriko dendetan produktu ekologikoak aurkitzea.



IKASLEEN ARTEKO FOROA

Maiatzaren 8an, eskola guztiko ordezkariak elkartu ginen Kultur Etxean ateratako ondorioak elkartu eta gure proposamenak adosteko asmoz. Guztion parte-hartzea beharrezkoa denez, hauek izan dira gure aldetik hartu ditugun konpromisoak:

GUK HARTZEN DITUGUNAK

1. Bertako eta garaiko produktuak kontsumitzen saiatuko gara.
2. Azoketan eta denda txikietan gehiago erosiko dugu.
3. Fruta gehiago eta litxarkeria gutxiago jango dugu.
4. Orokorrean ondo gosaltzen dugu baina fruta gehiago jango dugu.
5. Hamaiketarako fruta ekarriko dugu.
6. Bertako produktuak erosi ahal izateko dendariari laguntza eskatu eta galdetuko diogu.
7. Preziarik merkeena begiratu beharrean produktua nongoa den eta nola ekoiztua dagoen begiratu dugu.
8. Produktu ekologikoak aurkitzeko saiakera egingo dugu.
9. Produktua erosi baino lehen etiketak begiratu dugu.
10. Bilduki gutxi dituzten produktuak erosiko ditugu.
11. Produktuak zuzenean erosiko dizkiegu baserritarrei.
12. Produktu transgenikoak ez erosten saiatuko gara.
13. Bidezko merkataritzaren alde egingo dugu.

ESKOLAK HARTZEN DITUENAK

